

itzulpena: Maialen Berasategi



Adrienne Rich



**Munduko
Poesia
Kaierak**

Adrienne Rich

itzulpena:
MAIALEN BERASATEGI

SS literatura
Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Adrienne Rich

© itzulpenarena: Maialen Berasategi

© edizio honena: Susa

2017ko martxoa

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Ez dira asko izango bizitzan zehar Adrienne Richen bezainbesteko laudorioak jaso dituzten poetak. Haren poesiaren izaera kontuan hartuz paradoxikoa irudi lukeen arren, poeta estatubatuar batek jaso ditzakeen sari garrantzitsu gehienak jaso zituen (Yale Younger Poets Award, National Book Award for Poetry, Poets' Prize, Robert Frost Medal, Wallace Stevens Award). AEBetako Kongresuak ematen duen National Medal of Arts saria ere eman zioten 1997an, nahiz eta ukatu egin zuen, Bill Clinton-en administrazioaren "politika zinikoak" artearekin kontrajarriak zirela argudiatuz. National Book Award for Poetry saria eman ziotenean, aldiz, harekin nominatuak izan ziren Alice Walker eta Audre Lorderekin batera jaso zuen, "patriarkatuak isilarazitako emakume guztien izenean".

Oso gazterik jaso zuen Richen lanak aitortza, lehen poema liburua jada, 1951ko *Mundu aldaketa*, aski txalotua izan baitzen. Haatik, luze gabe jarri zuen zalantzan lehen obra haietan lantzen ari zen poetika. Sari eta laudorioak gorabehera, halako ezinegon bat sentitzen zuen, zeinari urte batzuen buruan forma emango zion. Urte luzez gizonentzat —bereziki aita-

rentzat— idatzi zuela ohartu zen 50eko hamarkada-
ren bukaeran. Aitortu izan zuenez, gizonezko poeten-
gandik (Robert Frost, Dylan Thomas, W. H. Auden,
Wallace Stevens, W. B. Yeats eta abar) ikasi zuen poe-
sia idaztearen antzea, lerroak ontzeko eskua, baina
horrekin ez zen aski poesia zinezko bat sortzeko. Kon-
tziientzia horrekin hasi zen, beraz, bere esperientzien
galbahetik igarotako poesia idazten, poesia askoz ere
gordin eta erradikalagoa, tradiziotik jasotako forma-
lismo zintzoetatik aparte. Biraketa horren mugarri
dugu 1959an argitaratu *Errain baten argazkiak* libu-
ruea. Bildumako izen bereko poema jotzen da adibidez
Richen lehen poema bete-betean feministatzat; ordu-
ra arte, Richen beraren arabera, bere burua poeta
emakumezko gisa ez identifikatzen ahalegindu zen
kosta ala kosta. Handik aurrera garatuko du, honen-
bestez, bere molde poetiko esanguratsuen, emaku-
me izatearen kontzientziak goitik behera gurutzatua.
Poemen egitura formalari dagokionez ere, garai har-
tan hasi zen tradiziozko forma metriko itxiei muzin
egin eta lerro askean idazten.

Biraketa hori idazle emakumezkoak irakurtzea-
ren poderioz gauzatu zuen, haien bidez jabetu bai-
tzen poesiaren historiaren izaera maskulinoaz. Bere

hitzetan, “poesia unibertsa”k ez zuen besterik esan nahi “poesia ez-emakumezkoa” baino. Literaturaren historia horren kritikaz ohartzeko *Hogeita bat maitasun-poema* sortako bosgarrena irakurri besterik ez dugu, esaterako. Hausnarketa horietan Virginia Woolf, Silvia Plath, Diane Wakoski eta beste izan zituen bidaide, zeintzuek erakutsi zioten ze tamainakoa zen (den) gizonaren indar eta ahala. Richek, bere poesiarren bidez, egoera horrek emakumezkoengan sortzen duen amorrua —ezkutatzera behartua— ikertzen jardun zuen, *Amorruaren fenomenologia* poeman esaterako irakurtzen ahal duguna. Halaber, lesbianismoaren izaera politikoa eta hark eragindako talka irudikatu zuen ale ugaritan: “bi emakume elkarrekin, hori lan bat dela / zibilizazioan ezerk erraztu ez duena”.

1929an jaio zen Baltimorean, bere hitzetan, “liburuz beteriko klase ertaineko etxe batean”. Neurri batean, bere jatorrizko identitate zuri, heterosexual, klase ertainekoa deseraikitzen ahalegindu zen, eta gatazka horren zauri eta zantzuak topatuko ditu irakurleak Richen poesian.

BEÑAT SARASOLA

Izeba Jenniferren tigreak

Izeba Jenniferren tigreak oihalean jauzi-jauzi denak mundu berde baten topazio distiratsuan bizi. Zuhaizpeko gizonei tigreek ikararik ez; hor ibiltzen dira zaldunen segurtasun dotorez.

Izeba Jennifer, behatza artilean astintzen ari baina nekez ia ezin eragin bolizko orratzari. Zama izugarri, osabaren ezkon-eraztuna izeba Jenniferren eskuan zeharo astuna.

Izebak, hiltzean, esku hil laborrituetan oraindik izango du mendean zuten sufrikarioen eraztunik. Baina behin egin zuen oihaleko tigreek baietz segitu hor jauzi-jauzika, harro eta beldur ments.

Bekatuan bizitzen

Uste izan zuen estudioa berez txukunduko zela;
hautsik ez maitasunaren altzarietan.

Erdi heresia, nahi izatea iturriak ez hain ozen,
kristalak krakatik libre. Platera bete udare,
estalki persiarra piano gainean, katu bat
sagu pintoresko jostagarriari kirika
irrikaz tentetua.

Eta ez bostetan eskailera oro karranka
esneketariaren pauso bakoitzarekin; ez goizeko
argiak

hain hotz marraztea bart gaueko
gazta-hondarrak eta hiru botila sepulkral;
ez sukaldeko apaleko platertxoetatik
kakalardo baten begi-parea iltzatzea bere begietan,
molduretako herriren baten mandatari...

Bitartean, gizona, aharrausi batez,
teklatuan dozena bat nota jo,
desafinatuta zegoela ebatzi, ispilu aurrean sorbaldak
jaso,

bizarra igurtzi, eta zigarro bila atera zen;
bitartean, emakumeak, deabru txikiak hari trufaka,

izarei tira gora, eta ohea egin, eta hartu zuen
trapu bat mahaiko hautsa kentzeko,
eta jarri zuen kafetera sutan, irakin zezan.
Iluntzerako, maiteminduta zegoen berriro,
ez guztiz, baina gau hartan
esnatu zen tarteka sentitzeko bazetorrela egun-argia
esneketari bat eskaileretan bezain tinko.

Errain baten argazkiak

1

Zuk, garai hartan neska eder Shreveport-en,
ilea hennaz tindaturik, azala mertxika-lore,
orduko erara eginarazten dituzu oraindik soinekoak,
eta jotzen duzu Chopin-en preludioa,
Cortot-ek deskribatu zuena: "*Oroitzapen gozo-
gozoak
memorian barna, perfumea bezala*".

Orain, gogamena desegiten zaizu ezkontza-tarta
baten gisan,
astundurik alferrikako esperientziaz, oparo
susmoz, esamesaz, fantasiaz,
egitate hutsaren labanaren ahoaren mende
birrinduta. Zure bizitzaren lorean.

Larri, kopetilun, zure alabak
koilarak garbitzen ditu, beste modu batean hazten
da.

Kafeontzia kolpez harraskan sartzean
 aditu ditu aingeruak errietan, eta begiratu du
 kanpora, baratze aratutik zero zirtzilera.
 Soilik astebete zera esan ziotela: *Ez izan
 pazientziarik.*

Hurrengoan, berriz: *Izan aseezina.*
 Eta gero: *Salba zaitetz, bestiak ezin salbatu dituzu-
 eta.*

Utzi izan dio inoiz iturriko zurrustari besoa
 kiskaltzen,
 pospolo bati hatz lodiko azazkala erretzen,

eta jarri izan du eskua teontziaren ahoan
 lurrun lausoan bete-betean. Aingeruak bide dira,
 bai,
 beste ezerk ez baitio jadanik minik egiten, salbu
 goizero begietan sartzen zaion zikinkeria horrek.

Andre pentsakor bat, munstroekin lo.
Heltzen dion mokoia, horixe da bihurtzen. Eta
Natura,
garaien eta usadioen kutxa hori,
tapaz estalia baina halere zabal,
gauza horiez denez beterik: laranja-lore
lizunduak,
emakumeentzako pastillak, Boadizearen bular
terribleak
azeri-buru zapalen eta orkideen azpian.

Bi emakume eder, eztabaida betean,
biak harro, bizkor, sotil, aditzen ditut oihuka
beira landuan eta maiolikan barna
harrapariak zokoratutako furiak bezala:
eztabaida bat *ad feminam*, bizkarrean herdoildu
zaizkidan
aizto zahar guztiak sartzen dizkizut zuri,
ma semblable, ma soeur!

Dulce ridens, dulce loquens,

andrea hankak depilatzen, geratzen zaizkion arte
mamut-letagin petrifikatu bat bezain distiratsu.

7

*Mundu ziurgabe honetan lekuren bat edukitzea
inork suntsitu ezin duena: hori
gutziz da garrantzitsua.*

Hala idatzi zuen
emakume erdi ausart eta erdi on hark
erdi ulertzen zuen hura borrokatu zuenak.
Inguruko gizon gutxik egin nahi edo ahal zuen
gehiago,
eta horregatik deitu zioten harpia, sorgin zahar eta
puta.

8

“Denak hiltzen zarete 15 urtetan”, esan zuen
Diderotek,
eta bihurtu erdi kondaira, erdi konbentzio.

Halere, begiek amets dagite lauso
lurrunez zurututako leiho itxiez harago.
Goxo, izan gintezkeen guztia,
izan ginen guztia —sua, malkoak,
adimena, gustua, anbizio martirizatua—,
nahasten da adulterio ukatuaren oroimena bezala
gure helduaroaren bular zimel ahitua bezala.

9

*Kontua ez dela ondo egitea
baizik egite hutsa?* Bai, pentsa
zenbat aukera! Edo ahaztu betiko.
Ume goiztiarraren luxu hau,
Denboraren elbarri kroniko preziatuarena...
uko egingo al genioke, maiteok, ahal bagenu?
Gure sinekura izan dugu madarikazio:
aski genuen talentu hutsa,
distira zenbait zatitan eta zirriborrotan.

Hasperen gehiagorik ez, andreok.

Denbora gizonezkoa da
eta ederren alde topa egiten du bere kopaz.

Konplimenduekin zurtuta, aditzen ditugu
goresten gure erdipurdikeriak,
pairamentzat hartzen gure soraiokeria,
intuizio estilotsutzat jotzen gure zabarkeria,
barkatzen gure hanka-sartze oro; gure krimena
ez da itzal handiegia egitea baizik
moldea kolpean puskatzea baizik.

Eta horretarako, konfinatze bakartua,
negar-gasa, akitu arteko bonbardaketa.
Izangai gutxi ohore horretarako.

Bizitzako beharrak

Zatika-zatika ari naiz, antza,
munduan berriz sartzen: lehenik izan nintzen

puntutxo finko bat, ikusten dut oraindik
aspaldiko ni hura, txintxeta urdin ilun bat

eszena hartara bultzatua,
buru txiki gogor bat kanporantz irtena

puntillistaren burrunba loratuan.
Handik bolada batera puntua

tantaka hasi zen. Zenbait berok
urtu zuten.

Orduan bizkor-bizkor

lausotu nintzen koloretan
gorri kiskalia, suzko berdea,

biografia oso batzuek, gorantz igeri,
irentsi ninduten Jonas bezala.

Jonas! Wittgenstein nintzen,
Mary Wollstonecraft, Louis Jouvet-en

arima, hilda
argazki handitu batean.

Harik eta, irentsia izan eta ia txiki-txiki eginda,
ikasi nuen arte nola egin neure burua

jateko txar. Lurrera botatako erraboil
lehor bat bezain ezkatatsu

erabili nuen neure burua, ezerk ni ez erabiltzeko.
Patu pribatu batean banengo bezala,

Egipton adreilu egiten bezalatsuago tarteka.
Hango bizitza hura, nirea zen,

behin eta berriz jartzea eskua
adreilu bero batean

eta ukitzea eguzkiaren isla
poztasun ekonomiko,

behin eta berriz izendatzea
behar hutsen gainetik.

Hainbeste, egun haietarako. Aurki,
praktikak erdi perfektu egingo nau agian, eta

ausartuko naiz munduan bizitzen
fierki mugituz, aingira baten gisan, eta trinko

azaburu bat bezain. Baditut gonbidapen batzuk:
lanbro-kiribil bat gorantz isuriz doa

soro batean, nire arnasa bezain ikusgai,
bide ondoko etxeak zain daude

andre zaharrak puntua egiten bezala, ito beharrear
beren kontuak kontatu nahirik.

Etorkizuneko immigranteok, adi arren

Edo pasatuko zara
ate honetatik
edo ez zara pasatuko.

Pasatzen bazara
beti izango duzu arriskua
zure izena gogoratzeko.

Gauzak bi aldiz begira dituzu
eta begiratu behar diezu zuk ere
eta bere hartan utzi.

Pasatzen ez bazara
baliteke
bizitzea duin

atxikitzea zure aburuak
eustea zeureari
hiltzea ausart

baina askok itsutuko zaitu,
askok egingo dizu ihes,
zeren ordainetan? Auskalo.

Ateak berak
ez du promesik egiten.
Ate bat besterik ez da.

Zuhaitzak

Barruko zuhaitzak kanpora doaz, basora
hainbeste egun hutsik egon den baso horretara
non ezin zen txoririk pausatu
ez intsekturik gorde
ez eguzkiak ere oinak itzaletan sartu;
baso hori, hainbeste gau hutsik egona,
zuhaitzez beteta egongo da goizerako.

Gau guztian sustriak lanean
portxeko zoruko
arrakaletatik askatu nahian.
Hostoak tenk kristalerantz
adaxkak zurrun eginahalaren eginahalaz
adar luze bihurrituak teilatupean nahaspila
senda-agiria jaso berri duten pazienteak bezala
erdi nahastuta
klinikako aterantz.

Barruan eserita nago, portxeko ateari zabalik
gutun luzeak idazten
baina doi-doi idatzi dut nola basoa

badoan etxetik.

Gaua fresko, ilargi betea dir-dir
zeru oraindik garbian
hosto- eta liken-usaina
aditzen da oraindik geletatik ahots baten gisan.
Xuxurlaz beterik daukat burua
baina isilduko dira biharko.
Entzun. Puskatzen ari da kristala.
Badoaz zuhaitzak estropezuka
gauerantz. Haiekin batera, haizea ziztuan.
Puskatu da ilargia ispilu bat bezala,
eta haren zatiek distira orain haritzik
garaienaren gailurrean.

Orion

Aspaldi, sigi-saga nindoala
alertze-sailetan zehar
zu zinen nire jeinua, zu
nire bikingo burdinazkoa, nire errege
kaskodun lehoi-bihoztuna, preso.
Urteak igaro, eta gaztea zara orain

nire nebaorde bortitza, behera
begira mendebalde sinplifikatu horretatik
bularra zabal, gerrikoa erdi erorita
gauza zaharkitu baten pisuz: ezpata bat
bertan behera utziko ez duzun azken arrandia hori
nahiz eta zama zaizun ibilian
nahiz eta ilun dauden haren izarrak
eta agian jadanik ez dauden sutan.
Baina zu bai, sutan zaude, eta nik badakit;
atzerantz botatzen dut burua zu barneratzeko
eta tranfusio zahar bat gertatzen da berriz:
astronomia zerutiarra ez zaio ezer.

Barnean, ubeldu eta baldartu ni,

hitza jan, aski gaixo alde egin
ni bakarrik, ilunetan jaiotako ume hil bat.
Gaua tximinia gainean hausten da,
denbora-zatiak, geoda izoztuak
zarra-zarra erortzen dira handik behera.

Gizon bat iritsi zait begien atzera
eta aurkitu dizkit hutsik;
emakume baten burua nire burutik
aldendu da ispiluan
haurrak nire heriotzan hiltzen ari dira
eta nire bizitzaren apurrak jaten.

Errukia ez duzu indargune.
Minez lasai zaude hor goian
mastaren puntan, zure belearen habian
nire pirata mutua!
Segurutzat jotzen duzu dena
eta berriz begiratzen dizudanean

begiratzen dizut izar-begi batez
haren lantza hotz berekoia jaurtiz
kalterik txikiena egin dezakeen lekura.
Hartu arnasa sakon! Ez minik, ez barkamenik

hemen kanpoan hotzez zurekin
bizkarra paretaren kontra duzula.

1968ko azaroa

Erantzita

aske flotatzen hasia zara

basoko suteen eta errauste-planten

ketan gora

ez zaituzte geldituko adar hostogabeek

ez radarren antenek

Zu zara udazkenak gertatzekoa zela bazekien hori

kolore primarioaren

azken kolapsoaren ostean

behin azken absolutuak birrindu zirenean

hasi ahal izan zinen

Nola zabaldu zinen kolpean, zerk bildu zaituen

orain arte

horretaz ez dakit ezertxo ere

liluragarri zait zutaz ez dakidana

orain, hortxe ikusten zaitudala

zeure burua ematen hasita

haizeari

Inplosioak

*Mundua
ez da lizuna
basa eta balantzaria baino ez*

Nahi nituen hautatu hitz batzuk
zu zeu ere aldatzeko modukoak

Har ezazu
nire taupaden hitza, maitagarri eta arrunt
Bidali zure seinaleak, igo
zure bandera ilun zirrimarratuak
baina heldu
niri eskutik.

Gerra oro da alferrik hildakoentzat

Sokan korapilatu zaizkit eskuak
eta ezin ezkila jo

Palankan izoztu zaizkit eskuak
eta ezin diot eragin

Gurpilean sartuta geratu zait oina
Dena amaitua denean eta etzaten garenean
lore garautsuen uztondoan
begiak zabal-zabal, ahoak begira-begira
urdin arterial birrinduz hautseztatuta
hutsa izango al da egin dudana
zuretzat ere?

Planetarioa

*Gogoan izanik Caroline Herschel (1750-1848),
astronomoa, Williamen arreba;
baita beste batzuk ere.*

Emakume bat munstro itxurakoa
munstro bat emakume itxurakoa
halakoz beteta daude zeruak

emakume bat "elurretan
Erloju eta tresna artean
edo kana batzuez neurtzen lurra"

eta bere 98 urteetan deskubritu
8 kometa

emakume hura, ilargiaren mendeko
gu bezalaxe
lebitatzen gaueko zerura
lente distiratsuak hara-hona

Emakume-galaxiak, han

saiatuegiak izateagatik penitentzian
nerbioak izotz
gogoaren espazio horietan

Begi bat,

“birila, zehatza eta erabat ziurra”
Uranoborgeko amaraun nahasietatik

NOVA

aurkitzen

argi-bulkada orok eztanda
muintetik,
biziak ospa egiten digun bezala

Tycho xuxurlaka azkenik
“Ez dezala iduri alferrik bizi izan naizela”

Ikusten duguna, ikusten dugu
eta ikustea aldatzea da

argi bat, ihartzen duena mendia
baina uzten duena gizon bat bizirik

Pulsarraren taupada
bihotza izerditan nire gorputzean barna

Irrati-uhina
Taurustik behera isurtzen

Bonbardatuta nago baina zutik
oraindik

zutik egon naiz bizi guztian
seinale-multzo bateranzko bidean zuzen
unibertsoan zehazkien transmititutako
hizkuntzarik itzulezinenean
hodei galaktiko bat naiz hain sakona hain nahas-
pilatsua ezen argi batek behar litzake 15
urte bidaiatzeko nigan barna Eta halaxe
izan da Instrumentu bat naiz emakume
itxurakoa saiatzan dena taupadak itzultzen
iruditara lasaitzeko gorputza
eta berregiteko gogo.

Amets egin dut Orfeoren heriotza naizela

Zitzu bizian noa arkupe baten ildo argi-ilunetan
barrena.

Emakume bat naiz bizitzaren lorean, botere batzuk
dituena
aurpegia inoizka baino ikusten ez diedan agintari
batzuek
zorrotz mugatutako botere batzuk.

Emakume bat naiz bizitzaren lorean
bere poeta hila Rolls-Royce beltz batean daramana
ilusenti eta arantzazko paisaia batean.

Emakume bat eginkizun bat duena
zorrotz betez gero kalte egingo ez dion eginkizun
bat.

Emakume bat pantera-nerbiokoa
emakume bat ezagutzen dituena Infernuko Aingeru
batzuk
emakume bat sentitzen dituena bere botereak bete-
betean
noiz eta erabili behar ez dituenean justu

emakume bat buru-argitasunarekin engaiatua
lurpeko kale hauen su ketsuan
eta anabasan barna ikusten duena
bere poeta hila, haize-kontra atzerantz nola ibili
ikasi nahian,
ispiluaren okerreko aldean.

Gazalak: omenaldia Ghalib-i

68/07/14: ii

Nire bizitzaz ari nintzela uste al zenuen?
Tradizio bati horma joarazi nahian ari nintzen.

Erre zuten soro hura beste guztiak baino berdeago
dago orain.

Ikusi behar duzu, esan zidan, garrek sustriak ere
hartzen dituzte.

Lur honen atmosferara jaurtiak izanik,
gure haurren haurrek argazkiak egingo dizkiete
agian harri hauei.

Gela ilunaren gorrian, argi ikusten dut neure burua;
baina paperean irudia agertu eta ateratzean,
aurpegi horrek
ez dit
ezertxo ere esaten

Guretzat, lanak bere burua desegiten du behin eta
berriz:

berriz hazten da belarra, pilatzen da hautsa,
zabaltzen da zauria.

68/07/26: i

Bart zera idatzi zenuen paretan: Iraultza poesia da.
Gaur, ordea, idatzi beharrik ez: eroria da horma.

Irakatsi ziguten errespetatzen errealitatearen atzeko
irudia.

Behin-behinean aske genituen zentzumenak,
zaintzapean.

Begi pare bat, hainbat urtez nire garezurrean preso
egona,
kanpora atera nahian ari zait su eta gar, latzak dira
buruko minak.

Eskultura hautsi baten hondakinetan nabil,
estropezuka

lagun baten bizkarrezurrarekin hemen, anaia baten
eskuarekin han.

Zer-nolako antza! eta gu, hala ere, bakan izateko
sutsu borrokan.

Azkenean, ez dugu lo egingo ez bakarrik, ez inoren
besoetan.

68/04/08

Aijaz Ahmad-entzat

Honako hauek letrak badira, gaizki irakurri beharko
dira.

Hormako zirrimarra batzuk badira, besteekin
nahastu beharko dira.

*Gorri zikinak Gora beltzen indarra Angelek
Rosita maite du*

Eta irrati batek espainieraz erantzuten du: *Etorri
behar du gauak.*

Presoak, soldaduak, beti bezala uzkurtuta, idazten,

barkaezina esplikatzen emazte bati, ama bati,
maitale bati.

Lausotu zaizkit aurpegi horiek, eta batzuk,
hain bero begiratu ohi nienak, urrundu ere bai.

Nolatan aurkitu du, Ghalib, zure nahigabeak, zatika
berpizturik,
Delhiko zure etxe ilunetik gela honetarainoko bidea?

Nire poema hau irakurtzen dutenean, itzultzaile
dira.

Existentzia oro mintzo da bere hizkuntzan.

68/08/08: i

Hemendik aurrera, denok biziko gara
Galileo bere lehen teleskopioarekin izarrei begira
bezala.

Arau txikiak betetzea eta handiak haustea
da izarrek sortzeko lehen pausoa.

Esperantza izatea ere ezezagunera salto egitea da,
gauzen izaeraren begi burlatien azpian.

Gerra bat dago lurrean, eta garezurrean, eta espazio
beiratsuetan,
existitzen direnen eta ez direnen artean.

Egun oro bizi beharra dut, egunak neure egin eta
denak ezagutu,
nahiz eta hemendik ere ikusten dudan non egongo
naizen azkenean.

Gure bizi guztia

Gure bizi guztia, itzulpen bat
gezurtxo zilegizkoak

eta gezur-korapilo bat orain
bere burua jaten, desegiteko

Hitzak hitzek hozkatuta
esanahiak erreta, pintura bezala
sopletearen azpian

Letra hil horiek denak
zapaltzailearen hizkuntzara errendituta

Medikuari esan nahian non dugun min
aljeriar hura bezala
bere herritik oinez joan zen hura, sutan

gorputz guztia min-laino
eta ez dago hitzik honetarako

salbu eta gizon hori bera

Agur bat doluaren debeku

Nire nahi nahasiak. Zure ezpain izoztuak.

Gramatikak, bira egin, eta eraso niri.

Gaiak, bortxaz idatzaraziak.

Oharren hustasuna.

Eman zidaten botika bat eta motelago sendatu
zaizkit zauriak.

Nik alde egin aurretik, ikus ezazu:

errepikaren esperientzia heriotza gisa

kritikotasunak mina aurkitzeko duen ezina

autobuseko poster hura, zera zioena:

kontrolpean dut nire odol-jarioa.

Landare gorri bat plastikozko lore-koroazko hilerri
batean.

Azken saialdia: metafora deritzon dialekto bat da
hizkuntza.

Badoaz hits irudi hauek: ile, glaziar, linterna.

Paisaia bat dudanean buruan, denbora bat dut
buruan.

Bidaian noala diodanean, betiko noala diot.

Esan nezake: mendi horiek esanahi bat dute
baina besterik ezin nezake esan.

Ohi-ohiko gauza bat egitea, neure moduan.

Arrotza

Lehenago bezala behera begira nabil kalearen
erdialdera, ibaira
etorbideen ibaietan barna ibilian
leizeen dardara sentituz asfaltoaren azpian
dorreetako argiak pizten ikusiz
lehenago bezala ibilian
gizon baten gisan, emakume baten gisan, hirian
nire amorru bisionarioak ikuspegia garbitzen didala
eta errukiaren pertzepzio xeheak
amorru horretatik loratuz doazela

argi lanbrotsu bizi horretatik at sartzen banaiz gela
batean
eta hizkuntza hil batean aditzen baditut
galdetzen badidate nor naizen
ezingo dut besterik esan:
androginoa naiz ni
zuen hizkuntza hilean
ezin deskribatu duzuen gogamen bizia
izen galdua, bizirik irten den aditza
infinitihoan soil-soilik

nire izenaren letrak ume jaioberriaren
betazalen azpian idatzita daude

Hondoralekura murgil

Mitoen liburua irakurria izanik,
eta kamera kargaturik,
eta labanaren ahoa prest,
jantzi dut
goma beltzezko armadura
hegats absurdoak
maskara serio bitxia.
Hau egin beharra dut
ez Cousteau-k bezala, bere
talde prestuarekin
eguzkiak blaitutako goleta batean,
baizik nik bakar-bakarrik.
Eskailera bat dago.

Eskailera hor dago beti
xalo zintzilik
goletaren alboan, hurbil.
Badakigu zertarako den
guk, erabilia dugunok.
Gainerakoan
ez da itsas soka bat besterik

askotariko tresnetarik bat.

Banoa behera.

Mailaz maila eta oraindik
barneratzen zait oxigenoa
argi urdina

gure giza airearen
atomo garbiak.

Banoa behera.

Elbarri naukate hegatsek,
intsektu bat bezala noa eskaileran behera
eta ez dago inor
esango didanik noiz
hasten den ozeanoa.

Hasieran airea urdina da eta gero
are urdinagoa eta gero berdea eta gero
beltza, belzten ari zait dena eta halere
indartsua da maskara hau
indarrez punpatzen dit odola
itsasoa beste kontu bat da
itsasoa ez da indar-kontua
neure kabuz ikasi behar
ahaleginik gabe biratzen

elementu sakon honetan.

Eta orain: erraza da ahazten
zertarako etorri naizen
beti hemen bizi izan diren
hauen guztien artera
gorgonia almenatuak kulunka
arrezifeen artean
eta gainera
ezberdin hartzen da arnasa hemen behean.

Hondoralekua esploratzera etorri naiz.

Hitzak helburu dira.

Hitzak mapa dira.

Etorri naiz ikustera gertatu zen hondamena
eta oraindik hor dauden altxorak.

Laztandu dut linternaren errainua

arrainak eta algak baino

iraunkorragoa den zerbaiten

alboan poliki

honetaraxe etorri naiz:

ontzi hondoratura, eta ez ontziaren istoriora

gauza-gauzara eta ez haren mitora

haren aurpegi itoa beti
eguzkirantz begira
hondamenaren erakusgarria
gatzak eta zabuak higatua eder zarpail hau
bihurtzeraino
hondamendiaren zuakerrak
beren aldarria kurbatzen
mamu dudatsuen artean.

Hauxe da lekua.

Eta hemen nago ni, uhandre bat, nire ile iluna
beltz isurian, tritoi bat gorputza korazatuta.

Isil biraka gabiltza
ontzi hondoratuaren inguruan
sartu gara sotora.

Ni naiz emakume hori: ni naiz gizon hori

begi-zabalik lo egiten duen aurpegi itokoa
bularrak oraindik larri dituen
zama zilarkara, kobrekara, gorrizta bat duena
usteltzen utzitako upel
erdi lotuen barruan ilun
tresna erdi suntsitu batzuk gara
inoiz norakorik izan zutenak

urak jandako bitakora
iparrorratz lohitua

Gu gara, ni naiz, zu zara
koldarkeriaz edo ausardiaz
eszena honetara itzultzeko bidea
aurkitu duena
aldean eramanik labana bat, kamera bat
mitoen liburu bat
non
ez den ageri gure izenik.

Amorruaren fenomenologia

1

Ero erabatekoak duen askatasun hori
bere erotasunean lohitu eta jostatzekoa
hatzak hortxe barruraino sartu eta
gelaren luzera idaztekoa

ez da noski zuk Broadway-n barna
izaten duzun askatasun hori

gelditu, bira egin edo aurrera jotzekoa
10 bloke; 20 bloke

baina inbidiagarri izango zaio agian
engaiatuta dagoenari

elikagarri behar zuen baina itogarri zaion
errealitatearen plazenta horretan katramilatuta.

Enbor heze erori bat sutu nahian ibili naiz
etxe honek zutik iraun duen artean:
makila lehorrekin ere txinpartarik ez
ezta arantzekin saiatuta ere.

Azken urtea bihurrituta, korapilatu ditut titular
zaharrak,
baina arrosa hau loratzen ez.

Nola sentitzen da makinistak eskuak garbitzeko
darabilen trapu-pila
tiraderan sartuta, orduak joan eta orduak etorri?
Beroaldian, egun oro,
belar-sorta bezain bero jartzen ziren.
Uzkurtu nintzen, iheslari,
belar onduaren epel goxo eztian

xuxurlatuz: *Zatoz.*

Neguaren muin laua.

Badatoz berriz ilargitarrak ilargitik

irten dira suhiltzaileak sutatik.

Denbora, gusturik gabe: denbora, erabakirik gabe.

Monotono bat buruan, norbere buruari gorroto.

Erbestean bizitako bizi baten azalekotasuna
baita herrialde beroetan ere.

Cleaver, labanaz betetako leiho bati begira.

4

Argi zuriak zatitzen du gela.

Mahaia. Leihoa. Lanpararen itzala. Zu.

Nire eskuak, modu berri batean itsaskor.

Hilekoaren odola

zure ondotik isurtzen bezala.

Saiatuko al zaizkit epaileak esaten

zein ote zen zeinen odola?

Erokeria. Suizidioa. Hilketa.

Ez al da beste biderik?

Etsaia, begi-bistatik kanpo beti
 elur-erraketetan hurrengo basoan, gorderik
 elur-nahaspila batean, elur-panpina gorrotagarri,
 behin izakirik suntsitzaile
 eta iheskorrena izan zena
 My Lai-n haurtxoei goitik tiroka
 liskar bete-betean desagertzen.

Airearen eta ilunaren printzea
 gorpuak zenbat diren zenbatzen, masturbatzen
 egitateen
 egindegian.

Hilketa-fantasiak: ez aski:
 mina etetea da inor hiltzea
 baina hiltzaileak min egiten du gero ere.

Ez aski. Amesten dudanean topo egin dudala
etsaiarekin, hau da nire ametsa:

azetileno zuria
uhinka nire gorputzetik
erraz-erraz askatua
ezin hobeto bideratua
egiazko etsaiarengana
haren gorputza garbatuz existentziaren
haritan
haren gezurra kiskaliz
mundu berri batean
gera dadin; gizon bat
aldatua

7

Bat-batean ikusi dut mundua
ez dela jadanik bideragarria:
kanpoan zaude uztak erretzen
sublimatu berriren batekin
Oraindik biona den ohe horretatik
irten zara goizean

eta hor joan zara ezina zabaltzera
munduan

Gorroto zaitut.

Gorroto dut zure maskara, zure begiak,
berez ez duten sakontasun hori
bereganatuak, bultzatzen nautelarik
zure kaskezurraren haitzulora

hezur-paisaiara

gorroto ditut zure hitzak
gogora dakarzkidate irudi
iraultzaile aizun horiek
gerra-zelaietan saltzen dituzten
imitaziozko pergamino lehorrak.

Bart gauean, gela honetan, negarrez
galdetu nizun: *zer sentitzen duzu?*
sentitzen al duzu ezer?

Orain, zure gorputzaren tolesturan
bizigai genituen soroak hostogabetzen ari zarela
badakit zein den zure erantzuna.

Mundu ertz-tolestua. Ilargi harrak jana.
 Zilarrezko zehar-marradura zurbil bat
 metalezko bahe baten antzo ur
 beltzetan. Fenomeno horiek denak
 behin-behinekoak dira.

Atsegin handiz biziko nintzen
 andreen eta gizonen mundu batean alaiki
 elkar hartuta hosto berdeekin, zurtoinekin,
 hiri mineralak eginez, kupula gardenak,
 belar ehunduzko etxolatxoak
 zein bere eredura.

Konspirazio bat, existitzeko
 Karramarro nebulosarekin, lehertuz doan
 unibertsoarekin, Gogamenarekin batera...

*Umeak eta beste emakume batzuk
 baino ez ditut maitatu benetan.*

*Gainerakoa haragikeria zen, errukia,
autogorrotoa, errukia, haragikeria.*

Emakume baten aitortpena da hori.

Orain, begiratu berriz aurpegira

Botticelliren Venusi, Kaliri,

Judith Chartresekoaren

irribarre ustezko horri.

10

gure bizitza nola erretzen ari garen
testigantza:

metroa

ziztuan Brooklyn-era

emakume bat, burua belaunetan

lo edo drogatuta

*la vía del tren subterráneo
es peligrosa*

asko, lo

bide guztian

beste batzuk, eserita

aireko su-zuloei begira
beste batzuek, matxinada buruan:
gaurik gau
kartzelan esna, nire buruak
koltxoia miaztu zuen, gar batek nola,
zelda-blokea orroka hasi zen arte

Thoreau basoari su ematen

Kontziente bihurtzeko ekintza oro
(hala dio liburu honek)
ekintza antinatural bat da

Itzulpenak

Nire adinekoa edo gazteagoa den emakume baten
poema batzuk erakutsi dizkidazu
zure hizkuntzatik itzuliak

Ageri dira hitz jakin batzuk: *etsai, labe, pena,*
nahikoa ohartzeko
nire garaiko andre bat dela

obsesionatua

Maitasunarekin, gure gai horrekin:
Maitasunean trebatu gara huntza horman nola
egosi dugu ogia labean nola
eraman dugu beruna orkatiletan nola
begiratu diogu binokularrekin, izango balitz bezala
gure gosetera jana dakarren
helikoptero bat
edo botere gaizto baten
satelite bat.

Irudikatu dut emakume hori

gauzak egiten: arrozari eragiten
gona bat lisatzen
eskuizkribu bat makinaz idazten argitu arte

telefono-aurkibidetik
dei bat egin nahian

telefonoa hoska, baina erantzunik ez
baina entzun du bestaldean gizon bat
bere logelan, beste norbaiti esaten
lasai. nekatuko da...

eta berari buruzkoak kontatuko dizkio gizonak
arrebari

eta emakumeak etsaitzat hartuko du haren arreba
eta garaia heltzen zaionean
argituko dio bere buruari penarako bidea

jabetu gabe atsekabe hori
konpartitua dela, alferrikakoa
eta politikoa

Bortxaketa

Bada polizia bat errondari eta aita dena aldi berean:
zure etxe-blokean bizi izan zen, zure anaiekin batera

hazi,

bazituen zenbait ideal.

Ia ez duzu ezagutzen botak eta zilarrezko plaka

jantzita,

zaldi gainean pistola haztatuz doala.

Ia ez duzu ezagutzen baina behar duzu ezagutu:
eskura du zu hiltzeko moduko makineria.

Trostan doa bere garañean, zaborretan barna,

gerra-jauntxoen gisan,

airean idealak, laino izoztu bat

ezpain irrigabeetatik kanpora.

Eta hala, garaia heltzen denean, jo beharko duzu
beregana,

maniako haren esperma oraindik koipetsu

izterretan,

burua ero zurrunbiloka. Eta aitortu beharko diozu
berari, bortxatua izanaren krimenaren

errudun zarela.

Eta hortxe bere begi urdinak, ezagutzen zenuen
familia
oso haren begi urdin horiek, ñarrotuta eta diz-diz,
eta bere esku hori xehetasunak idazten
den-denak jakin nahi baititu,
baina zure ahotsaren histeriak ematen dio atseginiak
handiena.

Ia ez duzu ezagutzen baina hark zu bai, ezagutu
uste zaitu:
idatzi du zure pasarterik okerrenea
makina batekin, eta karpeta batean karpetaratu.
Badaki, edo jakin uste du zenbat imajinatu duzun;
badaki, edo jakin uste du zer nahi zenuen isilean.

Eskura du zu akabatzeko moduko makineria;
baldin eta komisariako argi okagarrian
baldin eta komisariako argi okagarrian
kontatu dituzunak zure konfessore horren erretratua
badira,
irentsiko, ukatuko al dituzu, esango al duzu gezurra
etxera bidean?

Norbere burua kiskaltzen

Sutara begira dezakegu gaur gauean
ispilu batera bezala, bai,

egur moztua, gasezko muin hori-urdina

pilpira gorriko errauts grisa, bai.

Badakit nire betazalen barruan
eta azalaren azpian

Denborak heltzen digula haize-laster baten gisan
goraka, berotara tiraka
zilborretik, garunetik

Kontatu zenidan jarri zenuela eskua
aspaldi hildako indiar baten arrastoan
eta, une batez, ezagun egin zitzaidan esku hura,

arrasto hura, arroka hura,
eguzki hura amets indartsuak sortzen
Hitz batek egin dezake hori

edo, gaur gauean bezala, nire gogoaren suaren
ispiluak, kiskaltzen, segi balezake bezala
bere burua kiskaltzen, suntsitzen

gauza guztiez elikatzen
harik eta su horretan erre gaberik
ez dagoen arte.

Bizirik irten den batengandik

Egin genuen itun hura garai hartako
gizonen eta andreen arteko itun arrunta zen

Ez dakit nortzat genuen geure burua,
uste ote genuen gure izaerak
eutsi ahalko ziela ibilbidearen akatsei.

Zorionez edo zoritxarrez, ez genekien
halako akatsak zituenik bideak
ezta denok egingo genituenik ere

Beste guztiek bezalaxe, bereziak ginela uste genuen

Zure gorputza beti bezain bizi
dago niretzat: are biziago

harekikoak argiago sentitzen ditudanetik:
badakit zer egin zezakeen eta zer ez

orain ez da

jainko baten gorputza
ezta nire bizitzan ahalik duen deus ere

Hogei urte beteko ziren datorren urtean
eta hilda zaude zu, xahu
nork egin ote du jauzi hori
egiteaz beranduegi mintzatu ginena

ez dena orain niretzat
jauzi bat
baizik zirkin zoragarrien segida bat

non batak bide ematen dion besteari

Hildakoentzat

Amets egin dut deitzen nizula telefonoz
esateko: *Hartu goxoago zeure burua*
baina gaixo zeunden, eta erantzun ez

Hortxe doaz nire maitasunaren hondakinak
zu zeure buruarengandik salbatu nahian

Beti pentsatu izan dut energiaren
soberakinez: nola jaisten den ura ziztuan menditik
aspaldi atertu duenean ere

edo nola joan nahi duzun sutondotik ohera
baina ezin duzun, erretzen ari baita baina ez guztiz
txingar gorriak hortxe piztu eta itzali
zuk nahi zenukeen baino
kartsuago, bitxiago
gauerdia aspaldi pasatu dela.

Ahala

Gure historiaren lur-hobietan bizitzen

Gaur hondeamakina batek atera du lur-hegal
erori batetik

botila bat anbankara perfektua ehun urteko
sendagai bat sukarrarentzat edo

malenkoniarentzat edabe bat
lur honetan bizitzeko klima honen neguetan

Gaur leitu dut Marie Curieri buruz:

jabetua behar zuen seguru erradiazioak zuela
gaixotu

gorputza hainbat urtez bonbardaturik
berak findutako elementu horrekin

Ukatu zuen, itxuraz, azkeneraino

bere begietako kataraten sorburua

bere hatz-mamien azal zartatu zornatua

ezin izan zion arte eutsi ez saio-hodi bati, ezta
arkatz bati ere

Hil zen emakume ospetsu ukatuz

bere zauriak
ukatuz

bere zauriek eta bere ahalak berbera zutela
sorburua.

Isiltasunaren kartografiak

1

Hizketaldi bat hasten da
gezur batekin. Eta

hizkuntza komun deritzon horren hiztun orok
sentitzen du izotz-meta hausten, puskatzen

indarge bezala, ari balitz bezala
naturaren indar baten kontra

Poema bat has daiteke
gezur batekin. Eta birrindua izan.

Beste arau batzuk ditu hizketak
bere burua kargatzen du bere

energia aizunez. Ezin da
birrindu. Sartzen zaigu odolean. Errepikatzen da.

Bere ezin itzulizko orratzez irartzen du

ukatzen duen bakartze hori bera.

2

Musika klasikoko irrati-katea
ordurik ordu etxean jo eta jo

hartu behin eta hartu berriz
eta hartu berriz ere telefonoa

Silabak, gidoi zaharra
esaten behin eta berriro

Gezuraren sare formalean bizi den
gezurtiaren bakardadea

diala etengabe aldatuz, itotzeko laborria
esan gabeko hitzaren azpian

3

Zientziaren teknologia

Errituak, etiketa

terminoak lausotzea
hitzen edo musikaren edo

are hots gordinen
isiltasuna, ez absentzia

Isiltasuna izan daiteke plan bat
zorrotz-zorrotz betea

bizitza baterako proiektu bat

Presentzia bat da
badu historia bat forma bat

Ez bedi nahas
inolako absentziarekin

4

Zein bareak, zein kaltegabeak hasi zaizkidan
iruditzen hitz hauek

atsekabez eta amorruz hasi ziren arren.
Bide egin ote dezaket abstraktuaren film honetan

mindu gabe neure burua edo zu
bada nahikoa min hemen

Horregatik ari al da joka musika klasikoko katea,
jazz-katea?
esanahi baten funtsa emateko gure minari?

5

Biluzten den isiltasuna:
Dreyerren *Joana Arc-ekoaren pasioa*-n

Falconettiren aurpegia, ilea motz, geografia handi
bat
kamerak isilean xehe aztertua

Gerta baliteke halakorik poesiaren batean,
ez esanahien gainean larruaren gisan luzaturiko

hutsuneak edo hitzak bezala,
baizik isila amiltzen den bezala gau baten

amaieran, non bi pertsona hizketan aritu diren
egunsentira arte

6

Legez kanpoko ahots baten
garrasia

Utzi dio bere burua aditzeari, beraz
galdetu dio bere buruari

Nolatan naiz?

Isiltasun horixe nahi nizun nik hautsi
banituen galderak baina zuk erantzun ez

banuen erantzunik baina zuri balio ez
Alferrik da hau zuretzat eta akaso besterentzat

Kontu zaharra zen niretzat ere:
Hizkuntzak ezin du dena egin.

Idatz ezazu kleraz poeta hilen
mausoleoen paretetan

Ahalko balitz poetaren nahitara
olerki bat gauza bihurtu

hutsik utzitako marmol zati bat, ihintzak pizturiko
buru altxatu bat

Ahalko balizu begiratu besterik gabe aurpegira
begi-bola biluziz, bira egiten uzten ez dizula

harik eta zu, eta ni, zera hau aspalditik egin nahian,
azkenik biok batera haren begiradan argitu arte

Ez. Utzidazu edukitzen hauts hau,

hodei zurbil hauek goibel geldi, hitz hauek

zehaztasun amorratuz mugitzen
haur itsuaren hatzen gisan

edo jaioberriaren aho
gosetu bortitzaren gisan

Inork ezin dit eman, aspaldi
hartu dut metodo hau:

dela zaku xarean behera isuriz doan zahiarena
dela gas-sugar apaldu eta urdinduarena

Baldin eta tarteka inbidia badiet
bistaratzen diren agerpen aratzei

visio beatifica-ri
baldin eta tarteka nahi badut bihurtu

arto-buru sinple bati eusten ari zaion
hierofante eleusiar moduko bat

mundu konkretu eta betierekora itzultzeko,

hauxe hautatzen dut oraindik ere

hitz hauek, xuxurla hauek, elkarrizketa hauek
haietatik irteten baita kolpean egia behin eta berriz,
berde eta heze

Hogeita bat maitasun-poema

I

Hiri honetako pantailen ñirñirrean pornografia
edo zientzia-fikziozko banpiroak ageri diren aldiro,
edo zartailuz makurrarazitako soldatapeko

biktimizatuak,

orduan ere oinez segitu behar guk... besterik gabe
oinez

zabor euritan blaituan barna, geure auzoetako
tabloide-ankerkerietan barna.

Ulertu behar dugu ezin bereizi dugula gure bizitza
amets kerratu horietatik, metal-borborkada

horretatik, lotsa horietatik,

etxe baten seigarren solairuko leihoan

arriskutsu dir-dir ari den begonia gorritik,

edo institutuko patioan baloiarekin jolasean

dabiltzan

neska hankaluzeengandik.

Inork ez gaitu irudikatu. Bizi nahi dugu zuhaitzak

bezala,

aire sulfurikoan distira dagiten sikomoroak bezala,
orbainez josirik baina joritsu ernatuz,
gure animalia-pasioa hirian erroturik.

II

Zure ohean esnatu naiz. Ametsetan ibili naiz,
badakit.

Askoz goizago zela, alarmak bereizi gaitu kolpean,
orduak eman dituzu mahaian. Badakit zein zen
ametsa:

gure lagun poeta sartu da gelara
han neraman idazten egunak eta egunak
zirriborroak, ikatz-paperak, poemak hor nonahi
eta erakutsi nahi nion poema bat
nire bizitzaren poema. Baina duda egin
eta esnatu naiz. Musu eman didazu ilean
esna nendin. *Ametse egin dut poema bat zinela,*
esan dizut, mundu guztiari erakutsi nahi nion poema
bat...

eta, barrez, lokartu eta berriz amets egin dut
maite ditudan guztiei zu erakusteko irrikarekin,
zabal-zabal mugi gaitezen biok batera

grabitatearen indarrean, zeina ez baita sinplea,
zeinak urrun baitarama belar lumakara goranzko
arnasan behera.

III

Gazte ez garenez, asteka osatu behar denbora
elkarren faltan emaniko urteengatik. Baina
denboraren bihurtura
bitxi horrek baizik ez diost ez garela gazte.
Hogei urterekin sekula ibili ote nintzen ba goizez
kalean
gorputz-adarrak orain baino pozez txoratuago?
atera al nintzen leihora, hiriari goitik begira
etorkizunari adi-adi
zure deiaren zain kirioak dantzan nagoenean
bezala?

Eta zu, zu nigana zatoz tempo berean.
Betierekoak dira zure begiak, uda-hasierako
belar begi-urdinaren txinparta berdea,
udaberriak garbitutako berro basa urdin-berdea.
Hogei urterekin, bai: betiko biziko ginela uste
genuen.

Berrogeita bostekin, mugak zein ditugun ere jakin
nahi dut.

Ukitzen zaitut jakinik ez ginela bihar jaio,
eta nolabait, elkarri lagunduko diogula bizitzen,
eta nonbait, elkarri lagundu beharko diogula hiltzen.

IV

Etxera noa zugandik udaberriko goiz-argitan
argitsu daude ohiko hormak, Pez Dorado,
saltoki merkeak, zapata-denda... Jakien poltsak
besotan, korrika heldu naiz igogailura
eta gizon zahar zurrun neurritasun zaindukoak
ia itxi dit atea pare-parean. —*Itxaron, Jainkoarren!*
esan diot oihuz. —*Histerikoa!*, bota dit hark.
Sukaldera sartu, fardelak utzi,
kafea egin, leihoa ireki, Nina Simone jarri
Here comes the sun kantari... Posta zabaldu,
kafe goxo-goxoa edanez, musika goxo-goxoa adituz,
gorputzean oraindik zure arina eta astuna. Gutun
artetik

erori da fotokopia bat espetxean torturatutako
27 urteko gizon bahitu baten idazkiarena:

*Halako erakustaldi sadikoa egin dute nire
genitalekin*

ezen minez esna bainaukate etengabe...

Egin itzazu egin ahalak bizirik irauteko.

Badakizu zer? Gizonek gerra maite dute, nik uste...

Eta nire amorru sendaezina, nire zauri orbainezinak
areago zabaldu dira malkoz; negarrez ari naiz
desesperatuta

eta beren menpe dute oraindik mundua, eta zu ez
zaude nire besoetan.

V

Liburuz betetako etxe hau erditik ireki liteke
munstroen matraila gogor, begi irtenekin,
erraz: behin liburuak zabalik, aurre egin behar
maite izan duzun guztiaren beste aldeari;
apala eta pintzak erabat prest, ahotsik onenek ere
beren marmarra hedatzeko zeharkatu beharreko
mozala,
isiltasuna nahi gabeko haurrak lurperatzen...
andreak, desbideratuak, testiguak... desertuko
hondarretan.

Kennetek esan dit liburuak antolatu dituela
idazten ari den artean Blake eta Kafka ikusteko
moduan;

bai; eta guk hala ere borrokatu behar Swift,
andreen azala higuinduz batera miresten zuena
haien adimena,

Goethek amei zien ikara, Claudel erdeinuz Gideri,
eta erditzean hildako artisten, sutan erretako andre
jakintsuen

mamuak —eskuak estaturik mendeetan—,
idatzi gabeko liburuz betetako mendeak apal hauen
atzean;

eta erreparatu behar diogu oraindik
gure biziari hitz egin ez zioten gizonen, hitz egin
ezin izan zioten andreen

absentziari; zibilizazio deitutako zulo
hondeatu gabe honi, itzulpen honi, erdi mundu honi.

VI

Zure esku txikiak, neureen berdin-berdinak;
hatz lodia soilik handiago, luzeago. Esku horietan

utz nezake lasai mundua, edo halako hainbat
eskutan,
tresna elektrikoak erabiltzeko edo bolantea
gidatzeko
edo giza aurpegi bat ukitzeko... Halako eskuak gai
dira
haur jaiogabe bat zuzen jartzeko erditze-hodian
edo erreskate-ontzi miatzaile bat gidatzeko
izebergetan barna, edo kratera handi hautsi baten
orratz gisako puska zorrotzak berriz elkartzeko,
kratera bat alboetan dituen
emakume estasiatu batzuk
sibilaren gordelekura edo haitzulo eleusiarrera
bidean.
Esku horiek eragin lezakete biolentzia bat
saihetsezina
hain neurriz, hain heldurik
biolentziaren heinari eta mugei ezen
gutziz zaharkitua geratuko baitzen biolentzia
harrezkero.

VII

Ze munstro klasek bihurtuko luke bere bizitza hitz?

Ze espazio klase da hau?

Eta, hala ere, halako hitzak idatziz, bizitzen ere ari
naiz.

Hurbil ote dago hau otsokumeen uluzko
seinaleetatik,

izaki basatien kantata modulaturatik?

edo zu hitzez sortu nahian ari ote naiz urrun
nagoenean,

ez ote naiz ari zu erabiltzen baino, ibai bat edo
gerra bat bezala?

Eta nola erabili ote ditut ibaiak, nola erabili ote ditut
gerrak

idatziz ihes egiteko gauzarik okerrenari:

ez besteren krimenei, ezta geure heriotzari ere,
baizik behar adinako pasioz aske izan nahi ezari,
hartara zumar gorrinduek, ibai eriek, masakreek
irudi dezaten

geure buruaren profanazioaren enblema huts?

VIII

Neure burua ikusten dut duela urte batzuk Sunionen
oin infektatu baten minez, Filoktetes
emakume-eitez, herrenka bide luzean,
lurmutur batean etzanda, itsaso ilunaren gainean,
behera begira, arroka gorrietara, non kizkur zuri
hoskabe batek esan zidan hautsia zela uhin bat,
uraren erauntsia irudikatuz han goian,
jakinik borondatezko suizidioa ez nuela eginkizun,
baina une oro zainduz, neurtuz zauri hura.
Akabo, baina. Hila da emakume hura
bere pairamena maite zuena. Haren ondorengoa
naiz ni.

Maite dut hark eman zidan ehun orbaindua,
baina aurrera jo nahi dut hemendik zurekin
minbide bat egiteko tentazioari eutsita.

IX

Gauza itoak bizi diren putzu bat da gaur zure isila
gorantz tantaka nahi dut ikusi, eguzkira eramana.

Ez dut nire aurpegia ikusten hor, baizik beste
batzuk,

baita zeurea ere, beste adin batekoa zinela.

Biok behar dugu hor galdutakoa, zernahi dela ere:
urre zaharrezko erloju bat, sukarraren grafiko bat
urez lausotua,

giltza bat... Sakoneko lohiak eta hartxintzarrek ere
merezi dute beren aitortza-distira. Beldurra diot isil
honi,

bizi lokabe honi. Zain nago
haizeak leun zabal dezan ur hostotsu hau
behingoagatik, eta erakuts diezadan zer egin
zuretzat, maiz egin baitituzu zuk direnak
eta ez direnak besterentzat, baita niretzat ere.

X

Zure txakurra, otzan eta inozente, erdi lo
gure oihuen, egunsentiko konspirazio-xuxurlen,
telefono-deien artean. Badaki... zer jakingo du, ba?
Halako giza hantuste batez pentsatzen badut leitu
ditzakedala

haren begiak, nire animalia-gogamenak baino ez
ditut aurkitzen han:
kreaturek elkar behar dutela aurkitu, gorputzen
lasaigarri;
psikeko ahotsak azalean barna doazela
garun zurrinak iragarri ahal baino urrunago;
gau planetarioak hoztuz doazela
bidaide direnentzat, zeinek nahi baitute ukitu
kreatura bidaiari bat garbi azkeneraino;
infernuan gaudela samurtasunik ezean.

XI

Gailur oro da krater bat. Hori da sumendien legea,
horrek egiten ditu emakumezko, eternalki eta
ikusgarriro.

Goragunerik ez sakonunerik gabe, suzko muinik
gabe,
nahiz eta laba gogortuan birrintzen zaizkigun
espartzuzko zolak.

Zurekin joan nahi dut mendi sakratu orotara
barnerantz errez, sibila tripodantz makurtzen den
bezala,

hartu nahi dizut eskua bidean gora goazela,
eta sentitu zure arteriak bero nire eskuan,
bistatik sekula galdu gabe bitxi-antzeko loretxo hori,
arrotza, izengabea guk izenik jarri arte,
motel eraldatuz doan arrokari itsatsia;
kanpotik geure buruarengana gakartzan detaile hori
hemen zen lehendik, bazekien bagentozela, eta
ikusten du gugandik harago.

XII

Lo, planetak bezala, biraka bira
errotazioan beren gauerdiko larrean:
ukitu bakar batekin badakigu
ez gaudela bakarrik unibertsoan, ezta lo gaudenean
ere:
bi mundutako amets-mamuak
beren hiri fantasman ibilian, elkarrengana zuzenduz
ia.
Hemendik zenbait argi- edo ilun-urtetara esan
dituzun
hitzen marmarrak esnatu nau
neure ahotsa balitz bezala.

Baina ezberdina dugu ahotsa, baita lotan ere,
eta gorputzak, hain berdintsu baina hain bestelako,
eta odolean zehar oihartzun dugun iraganak
hizkuntza ezberdinak daramatza, esanahi
ezberdinak...

nahiz eta gure mundu honen edozein kronikatan
idatz lezaketen esanahi berriz
bi maitale ginela sexu batekoak
bi emakume belaunaldi batekoak.

XIII

Hausten dira arauak termometro bat bezala,
eta isurtzen merkurioa grafiko-sistemetan,
kanpoan gaude, hizkuntzarik gabeko, legerik gabeko
herrialde batean, erroiari eta txepetxari esetsika
argitu duenetik esploratu gabeko arroiletan barrena
zernahi ere egiten dugula, asmakuntza hutsa da
eman zizkiguten mapak hainbat urte
zaharkituta zeuden... autoz goaz basamortuan
aski ur izango ote dugun zalantzan
haluzinazioak herri soil bihurtzen dira
garbi dator musika irratitik:

ez *Rosenkavalier*, ez *Götterdämmerung*
baizik andre bat kantu zaharrak kantatzen
hitz berriz, eta baxu isil bat, flauta bat atzean
legez kanpoko andre batzuek hatz-puntekin joak.

XIV

Pilotuaz zenuen ikusmoldeak berretsi zidan
zutaz nuen ikusmoldea: esan zenuen, *Hor
dabil olatuei begira-begira, nahita*
eskotilla irekita makurtzen ginelarik
plastikozko poltsetan botaka
hiru ordu, Saint-Pierretik Mikelunera bidean.
Sekula ez zintudan sentitu hurbilago.
Bikote haiek kamarote itxietan eztei-bidaian zirela
elkarren magal-besoetan kuzkurtuta,
eskua jarri nizun izterrean
bion lasaigarri, nirean jarri zenuen zurea,
eta halaxe geratu ginen, batera sufritzen
gure gorputzean, sufrimendu guztia
fisikoa balitz bezala, elkar ukitu genuen deus jakin
ez
eta gutxiago inporta zitzaaien arrotzen aurrean

denak hantxe beren min pribatua botaka
sufrimendu guztia fisikoa balitz bezala.

(Igeri dagoen poema, zenbakirik gabea)

Zernahi ere gertatzen zaigula, zure gorputzak
pertsegituko du nirea; samur, ezti
zure maitasun-jarduna, basoko iratze-hosto
erdi-kiribilduaren antzera
eguzkitan blaitu berria. Zure izter jori bidaiariak
non sartu dudan aurpegia oso-osorik behin eta
berriz;
nire mihiak han aurkitu duen lekuaren inozentzia
eta jakituria;
zure bular-muturren dantza bixi nekaezina nire
ahoan;
zure ukia nigan, tinko, babesgarri, nire
bila, zure mihi sendoa eta hatz lirainak
hainbat urtez zure zain izan naizen lekuan
nire haitzulo umel arrosan. Zernahi gerta, hauxe da.

XV

Etzan banintzen zurekin hondartza zuri huts hartan
Golkoko itsaslasterrak goxatutako ura garbi berde
baina ezin izan baginen geratu hondartza hartan
etzanda

haizeak hondar fina zekarkigulako
gure kontra balego bezala,
saiatu baginen hura jasaten baina lortu ez,
joan baginen beste norabait
elkarren besoetan lo egitera
eta estuak baziren oheak, presoen oheen antzera,
eta nekearen nekez ez bagenuen elkarrekin lo egin,
eta horixe aurkitu genuenez horixe egin bagenuen...
guk sartu al genuen hanka?
Zirkunstantziei helduta, ezin nintzen sentitu
erantzule. Hautatu ez zuela dioen hori
baizik ez da izaten azkenean galtzaile.

XVI

Zugandik hiriaz bestaldean, zurekin nago
abuztuko gau bat nola

ilargian bezala, badia goxoan, itsasoak bustita, ikusi
zintudan lotan,
han ondoan apain-mahaiaren zur hits gastatua
eta han gure eskuilen, liburuen, potoen nahaspila
ilargi-argitan,
edo gatz-lainozko zuhaizti bat, zure ondoan etzanda
ilunabar gorriari begira etxolako atearen saretatik
harago,
Mozarten sol minorra kasetean
itsasoaren musikarekin lokartuz.
Manhattango uharte hau aski zabala da
gu biontzat, eta estua:
arnasa aditzen dizut gaur gauean, badakit
gora begira zaudela lo, ilun-antxak
marrazten dizula aho jori samur hori
eta hor daudela lo mina eta barrea, biak batera.

XVII

Inork ez du ez paturik ez madarikaziorik inor
maitatzeko.
Gertatzen dira istripuak, ez gara heroiak,

gertatzen dira gure bizitzan, auto-ezbeharrak
bezala,
aldatzen gaituzten liburuak bezala, azkenerako
maitatu ere egiten ditugun auzo horiek bezala.
Gutxi du istorioak Tristan eta Isoldarenetik,
emakumeek jakin behar lukete gutxienez bereizten
maitasuna eta heriotza. Ez pozoï-koparik,
ez penitentziarik. Ideia lauso bat soilik:
grabagailuak
jaso behar zuela guri buruzko zertxoren bat;
grabagailuak
ez zuela musika jo behar soilik, baizik guri entzun,
eta gure ondorengoei irakatsi:
hauxe ginen, halaxe saiatu ginen maitatzen,
eta indar hauek erabili dituzte gure kontra,
eta indar hauek borrokatu ditugu gure baitan,
gure baitan eta gure kontra, gure kontra eta gure
baitan.

XVIII

Euria West Side Highway-n
argi gorria Riverside-n:

*zenbat eta gehiago bizi, sinetsiago nago
mirari bat direla bi pertsona elkarrekin.*

Zure bizitzaren istorioa kontatzen ari zara
beingoagatik, dardara batek hautsi dizu hitzen
azala.

Gure bizitzaren istorioa gure bizitza bihurtzen da.
Ihesi zoaz orain, poeta segurki victoriarren batek
gatz-itsaso arroztailea izendatu zuen hartan barna.
Hitz horiexek etortzen dira gogora.

Arroztasuna sentitzen dut, bai. Nola sentitu dudan
egunsentia argiari bultzaka. Zer edo zer: argi-arrail
bat ote...?

Penaren eta amorruren artean gertu, irekitzen da
espazio bat
eta hor Adrienne naiz bakarrik. Gero eta hotzago.

XIX

Gero eta hotzago ote nabil, hasi banaiz berriz
ukitzen neure burua, apartatuta atxikimendua?
Aurpegi biluziak atzera begiratzeari utzi eta motel
orainari begiratzen dionean,

neguaren, hiriaren, amorruaren, pobreziaren begia
eta herioren
eta ezpainak zabaldu, eta esaten dute: *Bizitzen
segitu nahi al dut?*
Hotz ari al naiz baldin eta amets batean
edo poema honetan esaten badizut *Ez dago
miraririk?*
(Hasieratik esan nizu nahi nuela eguneroko
bizimodua,
aski uharte zitzaidala Manhattango uharte hau.)
Esan ahalko banizu...
bi emakume elkarrekin, hori lan bat dela
zibilizazioan ezerk erraztu ez duena,
bi pertsona elkarrekin, hori lan bat dela
heroikoa bere arruntean,
zelai bateko igaro motel etena
non arretarik zorrotzeta bihurtzen den errutina...
Hori hautatu dutenei, begiratu aurpegira.

XX

Beti izatear ginen hizketaldi
hura buruan dabilkit bueltaka,

gauez Hudson dar-dar doa New Jersey-ren argitan
ura kutsaturik baina islatuz tarteka
baita ilargia ere
eta begiztatu dut inoiz maitatu nuen
emakume bat, sekretutan itotzen, izu-zauri bat
zintzurrean
ilea bezain itogarri. Eta andre harexekin
saiatu nintzen mintzaten; haren buru adierazkor
zauritua doa hor,
minetik urrunduz, gero eta hondorago
entzun ezin nauen lekura,
eta aurki jakingo dut neure arimarekin ari nintzela.

XXI

Harrizko tresnaz izurtutako borobil izugarriaren
ateburu ilunak, harri urdin arrotzak
uda beteko gauaren argia pizten ostertzaren
atzetik... “Argi-arrail bat” esan nuenean,
hauxe esan nahi nuen. Eta hau ez da Stonehenge
ez beste ezein toki, baizik gogamena
atzeraka, norabait, non bakarrik egotea,
inorekin, hauta litekeen bakardaderik gabe,

ez erraz, ezta borobil hori, itzal astun horiek,
argi eder hori zaintzeko minik gabe ere.

Hautatu dut izatea argi horretako figura,
ilunetan erdi gorderik, zerbait
espazioan barna doana, harri-kolore bat
ilargia agurtzen duena, baina harri bat baino
gehiago:

emakume bat. Hautatu dut hemen ibiltzea. Eta
borobil hau marraztea.

Natur baliabideak

3

Ilunetan murgildu da kaiola,
aurrera doa bizitzaren egunerokoa:

atearen kirtenari eragin dio andre batek, baina
hain poliki, hain isilik, ez baita inor esnatu

eta berak bakarrik begiratu du
logelen ilunera, berak bakarrik aztertu

nola dauden lo, zeinek behar duen bere laztana
zer leihotatik sartzen den otsaileko izotza

gela barrura, eta zeinek behar duen babesa:
Berak soilik ikusten du; bera soilik entrenatu dute
ikusteko.

*Imajinatzen al duzu emakumez bakarrik osatutako
 mundu bat,*
 galdetu zidan elkarrizketatzaileak. *Imajinatzen al
 duzu*

emakumerik ez den mundu bat. (Txantxa-ustean
 zebilen gizona.) Nik, ordea, imajinatu behar

bi-biak aldi berean. Bi-bietan
 bizi bainaiz. *Imajinatzen al duzu,*

galdetu zidan elkarrizketatzaileak, *gizonen mundu
 bat?*

(Txantxa-ustean zebilen gizona). *Eta, hala bada,*

gizonik ez den mundu bat?

Adigabe, nekatuta, erantzun nion: Bai.

Bitartean, beste izaki mota bat

bere burua egiten ari zen, itsuan

...mutante bat, zenbaiten esanetan:
odolez behartutako ale bat

“alferrik galdutako zibilizazio” batekoa,
haietako batek esan zuen bezala

haurrek horren alde pistolak hartzea,
horixe da gizon izatea

*Indarkeriaz bizi izan gara zazpi urte
Bizi bakar bat ere ez zuen merezi...*

baina aberkoiak andrearen lepoan dauka ukabila,
hiltzorian dago andrearen ahotsa

eta halako izakiak gure ohean etzan dira
beren burua izendatuz gure desira

andreen odola exijituz bizitzarako
andre baten bularra, amesgaiztoak bertan
pausatzeko

Emakumeek gordetako gauza horiek
besterik ez zaigu geratzen orain haiengandik

eta haien maiteengandik
eskutitz lazodun horiek, urteetan

ebakin-albumaren orrialdeetan
fedez itsatsitako irudiak

ebakinak, patchwork bihurtuak,
panpina-soinekoak, odoljariora eteteko

trapu zuri garbiak
emaztegaiaren zapi horia, tearen kolorekoa

haurraren garaiera arkatzez sotoko atean
Bihitegi hotz honetan, guk amets

gauza xumeen unibertso batekin;
eta horiek gabe, ez memoriarik

ez fideltasunik, ez helbururik etorkizunerako
ez ohorerik joanari.

14

Hilda daude beren burua meatzari uste zuten
emakumeak. Badoa hegan ostadarra

nola doan hegan hodei-hormen
euskarria; beta zilar-berdea

esperoan dago pikotxa noiz kolpeka hasiko,
eta zain iluna, argi-nahiz malkotan.

Salbatu ezin dudan denagatik hunkitzen zait
bihotza:

hainbeste dute suntsitu

nahitaez lerratu behar baitut
urterik urte, modu perbertsoan,

botere handirik gabe
mundua berregin dutenen alde.

Integritatea

*bukatua egotearen tasuna edo ezaugarria;
hautsezinaren kondizioa; osotasuna* — Webster

Pazientzia basa batek ekarri nau honaino

eraman behar banu bezala ur-ertzera
ontzi bat motor espasmodiko bat duena
jertse zaharrak, sareak, liburu espraiz zikinduak
brankan kulunka
eguzki nolabaiteko bat niri besaburuak erretzen.

Toletak zipriztintzen. Erretzen.

Kiskali ahal zaizkizu besaurreak, minak miazkaturik,
lanbro kasual baten atzean amorru isilarazia bezala
gordetzen den eguzki batekin.

Egun-argiaren luzea
iparralde urrun honetan, nire
bizitzako 49. urtean
kritikoa da.

Kritikoa da argia: nirekin, aspalditik

amestu bezala barne-itsaso baten adarrean
nahi gabe lurreratze honekin.

Ezaguna egin zait
arrain-sardaren distira
pixkana itzal bihurtzen:
pinudia
beltz-bioleta egiaz, berde postal zaharrearan,
baina neure burua baizik ez daukat
aurrera egiteko; ezer ere
ez dago behar hutsaren erreinuan
neure eskuek har dezaketena baino.

Neure burua baizik ez?... Neure buruak.
Hainbeste denbora, eta horixe erantzuna.
Beti jakin banu bezala
barnera daramadala ontzia, soilki.
Motorra hartxintzarretan hiltzen,
eta txitxarrak
isilari karraka.

Amorrua eta samurtasuna: neure buruak.
Eta orain sinesten dut biek dagitela arnasa nire
barnean
aingeruen gisan, ez polaritate gisa.

Amorrúa eta samurtasuna: armiarmaren
jeinua, bere gorputzarekin berarekin
aldi berean irun eta jostekoa, edonon...
baita sare hautsian ere.

Salgai dago oraindik
pinudiko txabola. Ezagutzen dut. Ezagutzen dut
azken
oinaren aztarna hori, atea kolpez itxi zuen eskua,
gero atzeko zursarean euriak hondatutako ezkabia-
belarra
bere ez beste inoren mesedetan
kiribiltzera geratu zen eskua.
Ezagutzen dut hormako oholetan iltzatutako mapa
hori
su txiki osoa hartzen duen teontzi izoztua.
Bi esku hauexek
sartu zituzten iltze horiek mailuz
hustu zuten teontzia azken aldiz
eta harrapatu zuten bi hanka dardartiren artetik
ziztuan ihesi zihoan haurtxoa
eta pasatu zuten xurgagailua
eta laztandu loki izerdituak
eta ontzia hona bideratu eguzki-argi bero

eklipsatugabe horren, argi kritiko horren azpian,
zeina inor ohartu gabe kiskaltzen ari baita
esku hauek ukendu ere izango dituen azala.

Nire ahoa zure bularretan barna

Nire ahoa zure bularretan barna
neguko arratsalde labor grisean
delikatuak gara ohe honetan
eta ukitzen dugu elkar hain poz beroz, liluratzeraino
gogor eta delikatu, biribilean jarduten dugu
elkarren inguruan eguneko kandela erretzen zaigu
bere argi bereziarekin eta elurra
hasten badu kanpoan adarrak estali arte
eta etortzen bada gaua abisatu gabe
hor daude neguaren plazerak
bat-bateko, basa eta delikatu zure hatzak
zehatz nire mihia zehatz une berean
txantxa bati barrezka geldituz
nire amodioa zure urrinean bero, neguaren
gailurrean

Ikasgela batean

Poesiaz hizketan, besoak liburuz gainezka
mahaira bidean, eta bertan buruak
albo batera edo gora begira, adi, ahots gora leitzen,
kontsonanteez hizketan, elisioaz,
nola-n harrapatuta, zergatiaz jabetzeke:
begiratzen dizut aurpegira, Jude,
beltzuririk ez, baietzik ere ez,
lauso, mahai gaineko hauts-izpien norabidean:
presentzia bat harri gisakoa, harriak pentsatuko
balu:

Esan ezin dudana, ni naiz. Horregatik etorri naiz.

Hala idatzia gera dadin

Gerra hau ez zuten egin lainoek eta izarrek
errekek ez zuten eman informaziorik
mendiek suzko harriak jaurti bazituzten ibaira
ez zituzten jaurti inoren alde
euri-tanta hark, hostoetan leun kulunka,
ez zeukan iritzi politikorik

eta egon bazen ere inon etxerik
hondakin-ura pilatzen zuena
edo bere biztanleak pozoitzen zituena
ke motelez, urterik urte
etxeak ez zeuden gerran
eta etxola latorrizkoek ere

ez zieten babesik ukatu nahi
andre zahar etxegabeei eta ume herrariei
ez zeukaten politikarik inor herrabidetik
edo heriotzatik babesteko, ez, arazoa ez ziren hiriak
zubiak ez ziren inoren aldeko
autobideak sutan zeuden, baina ez gorrotoz

Hainbat milia txarrantxa ere
hedatzen ziren behin-behineko txabola uzkurren
inguruan

jendaila distantzia seguru batean
edukitzeko, begi-bistatik kanpo
oholek ere, urterik urte
xurgatu beharrez hainbeste giza soinu

hainbeste gonbito, hainbeste malko
odola motel bustiz,
ez zuten beren burua eskaini honetarako
Zuhaitzak ez ziren boluntario aurkeztu ohol
bihurtzeko
ezta arantzak ere, larrua urratzeko
Begira horri guztiari

eta galdetu noren sinadura
dagoen zigilaturik agindu horietan, zirrimarraturik
eraikuntza-planen izkina batean
Galdetu non zeuden emakume analfabeto
tripaundiak, non zeuden mozkorrak eta eroak,
beldur handiena diezun horiek: galdetu non
zeunden zu

Delta

Hartu baduzu kondar hau nire iragantzat eta eskuaretu baduzu, saltzeko puska bila jakin ezazu aspaldi jo nuela sakonera muin-muina zuzenean.

Uste baduzu harrapatuko nauzula, pentsa berriz: bide batean baino gehiagotan doa nire istorioa ibai-zolatik jauzika isurtzen den delta bat bost hatzak zabal-zabalik.

Mundu zailaren atlasa

II

Hona hemen gure herrialdearen mapa bat:
hona hemen Indiferentziaren Itsasoa, gatzez
beiratua

Hau da gailurretik dikeraino doan ibai sorgindua
ez gara ausartzen edaten haren urik

Hau da basamortu hori, non misilak landatzen diren
erraboilak nola

Hau da hipoteka pagatu ez zutenei kendutako
etxaldeetako ogi-saskia

Hau da mutil rockabillyaren jaioterria

Hau da demokraziagatik hil ziren

pobreen hilerria Hau da borrokaleku bat
XIX. mendeko gerra batekoa ospetsu da
santutegia

Hau da itsas hiri bat mitozkoa, istoriozkoa
arrantzaleen ontziek

porrot egin zutenekoa hementxe zegoen lana
kaian

arrain-taketa izoztuak prozesatzen orduka
kobratu eta parterik ez
Hauek dira beste borrokaleku batzuk Centralia
Detroit
hemen daude jatorrizko oihanak kobrezko
zilarrezko zainak
Hauek dira onespeneraren aldiriak isiltasuna ke-
eitez
gorantz kalean
Hau da diruaren eta minaren hiriburua, non etxe
orratzak
pizten diren kolpean aire-inbertsioetan, non zubiak
dauden erdi erorita,
zeinaren haurrak itsu doazen etorbideetan
noraezean
arantza-alanbre kiribilduen artean harrapatuta
Zin egin nizun erakutsiko nizula mapa bat baina
mural bat da hau, diozu
tira bai berdin dio txikikeriak dira horiek
nondik begiratzen diogun horixe da kontua

XIII - Eskaintzak

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela
berandu, bulegotik alde egin baino lehen
lanpararen argi horia bizi eta leioa gero eta
ilunago

isilean desagertuz doan eraikin baten
makaltasunean

puntako ordua aspaldi pasatuta. Badakit poema
hau irakurtzen ari zarela
ozeanotik urrun dagoen liburu-denda batean zutik
udaberri hasierako egun gris batean, maluta ahulak
zure inguruko ordokien espazio erraldoietan hara-
hona.

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela
jasan ahalak baino gehiago gertatu zaizkizun gela
batean

ohe-jantziak hortxe mordoilotuta
eta badakit maleta irekia hegaldi batez mintzo dela
baina ezin zarela joan oraindik. Badakit poema
hau irakurtzen ari zarela
lurpeko trena pixkanaka motelduz doala,
eskaileretan gora abiatu aurretik
bizitzak sekula baimendu ez dizun

maitasun berri baterantz.

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela telebista
baten

pantailaren argitan, irudi soinu-gabeak jauzi eta
irrist,

intifadari buruzko albisteen zain zaudela.

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela itxarongela
batean

begiek topo eta destopo, jende arrotza
identifikatzen.

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela argi
fluoreszente batekin

goizegi baztertu dituzten, beren burua goizegi
baztertu duten

gazteen asperraz eta nekez. Badakit

poema hau irakurtzen ari zarela ikusmen gero eta
lausoagoz, zure betaurreko

lodiak letrak handituz esanahi ororen gainetik, eta
zu halere leitu eta leitu

alfabetoa bera ere baliotsu baita.

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela labe
ondoan hara-hona

esnea berotzen, haur bat negarrez sorbaldan, liburu
bat eskuan

laburra baita bizitza eta egarriak baitzaude zu ere.

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela zure

hizkuntzan ez dagoen arren

hitz batzuk igarriz, beste batzuek gehiago leitzera

bultzatzen zaituztela

eta jakin nahi dut zeintzuk diren.

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela zerbait

entzun nahirik, hautsita

mingostasunaren

eta esperantzaren artean

uko egin ezin diozun lan horri berriro ere ekinez.

Badakit poema hau irakurtzen ari zarela ez delako

besterik irakurtzeko

lurreratu zaren leku horretan, zauden bezain biluzik.

Urte haietan

Urte haietan, jendeak esango duenez, ahaztu
zitzeaigun

gu-ren esanahia, *zuek*-ena

ikusitua genuen geure burua

ni-ra murriztua

eta dena bihurtu zen

zozoa, ironikoa, terrible:

bizimodu pertsonal baten bila genbiltzan

eta ez, ezin genuen jasan

bizimodu harexen lekuko izatea besterik

Baina historiaren txoritza ilunak karrankaz

murgildu ziren

gure eguraldi pertsonalean

Beste norabait zihoazen baina haien moko-hegalak

itsasertzetik etorri ziren, behe-lainotan barna

gu geunden lekuraino, esanez *ni*

Azken oharrak

ez da erraza izango, ez du luze joko
labur joko du, beharko duzu gogamen osoa
beharko duzu bihotz guztia, beharko duzu arnasa
guztia
laburra izango da, ez da erraza izango

saihets-tartetik ukituko zaitu, beharko duzu bihotz
guztia

ez du luze joko, hartuko dizu gogamena
hartzen den bezala hiri bat, hartzen den bezala ohe
bat

larrua eman beharko duzu, ez da erraza izango

guregana zatoz eta ezin dizugu eutsi
guregana zatoz eta sekula ez dizugu nahi izan eutsi
gure puska batzuk daramatzazu inoiz pentsatu
gabeko lekuetara

urrun-urrunera zoaz gure bizitzaren puskekin

laburra izango da, beharko duzu arnasa guztia
ez da erraza izango, zure nahia bihurtuko da